



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO URRIAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko urriaren 29an, arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Julen Beunza, Xabier Azpiroz eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai eta Santos Etxegia.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onspena.

Urriaren 1ean egindako batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

-- 2020/68 alkate ebazpena urriaren 4koa onartuz behin behinekoz, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Herriko Plaza 6 kalean dagoen trastelekuaren salmenta, Nafarroako Rural Kutxak egindakoa.

- 2020/69 alkate ebazpena urriaren 5eko onartuz Goretzi Beunza Mariñelarenari Ihabengo Natibidad 12 kaleko eraikinerako landa etxe iharduera baimena.

- 2020/70 alkate ebazpena urriaren 5ekoa obra baimena emanaz Ondoren zehazten den obra baimena ematea Pedro Munarriz Goñiri Ihabengo 3. Poligonoko 280. Lursailean dagoen Bordako teilatua konpontzeko aurrekontua 8.645,20 eurokoa da.

- 2020/71 alkate ebazpena urriaren 5koa Amaia Etxanizi Beramendiko 2. Poligonoko 1. Lursaileko itxidura obra legeztatzeko baimena emanaz aurrekontua 170,10 eurokoa izanik.

- 2020/72 alkate ebazpena urriaren 5ekoa obra baimena emanaz Juan Arangoa Ilarreguiri :Gartzarongo Asuncion 6 1. Eskubi etxebizitzako leihoak eta kontraleihoak aldatzeko. aurrekontua 5.621,30 euro.

- 2020/73 alkate ebazpena urriareko 5ekoa obra baimena emanaz Miguel Legarra Iriarteri Gartzarongo Asuncion 6 1. ezker etxebizitzako leihoak eta kontraleihoak aldatzeko aurrekontua 3.010 euro.

- 2020/74 alkate ebazpena urriaren 5ekoa obra baimena emanaz Karmele Legarra Iriarteri Gartzarongo Asuncion 6 2. eskubi etxebizitzako leihoak eta kontraleihoak aldatu. AURREKONTUA 5.995,12 euro.

-2020/75 alkate ebazpena urriaren 5eko obra baimena emanaz Joaquin Legarra Iriarteri Gartzarongo Asuncion 6 2. ezker etxebizitzako leihoak eta kontraleihoak aldatu. aurrekontua 3.010 eurokoa da.

-2020/76 alkate ebazpena urriaren 5ekoa obra baimena ematea Iriarte anaiei Itsasoko 4. Poligonoko 24. Lursaileko etxebizitzan teilatua konpontzeko 51.955 euroko aurrekontuarekin.

-2020/77 alkate ebazpena urriaren 6koa obra baimena ematea Alfonso Hernandez Pousari Aizarotzko 10. Poligonoko 8. Lursailean dagoen etxebizitzaren fatxada eta itxidura pareta berritzeko eta leihoak aldatzeko, obraren aurrekontua 31.293,50 euro dira.

- 2020/78 alkate ebazpena urriaren 7koa Asensio Azpirozi zuzendua onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 5018DRJ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 14,07 eurokoa izanen delarik.

2020/79 alkate ebazpena urriaren 7koa Inma Fernandezi baimena emanaz Basaburuko Basandereok elkartearen izenean, Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko urriaren 17an Virginia Imazen tailerra egiteko goizeko 10etatik 14etara.

-2020/80 alkate ebazpena urriaren 7koa onartuz NA 10230 matrikuladun ehiza barrutiaren esleipen zuzena arautzen duen plegua eta zuzenean esleitu G 71043020 Basabila Ehiztari Elkarteari tokiko ehiztari elkarte bezala, ehiza barrutiaren kudeaketa.

- 2020/81 alkate ebazpena urriaren 20koa Xabier San Martini zuzendua lehen erabilera baimena emanaz Arraratsko 14. Poligonoko 313. Lursailean dagoen bigarren etxebizitzarako. Etxe honen helbide postala ondorengoa izanen da: Arrarats Diseminatua 31866, Etxaundiko Borda 2.

2020/ 82 alkate ebazpena urriaren 21ekoa onartuz, Roberto Echeverria Biurarenari urez betetako plastikozko ballak jartzea, Beramendiko 2. Poligonoko 7. Lursailaren

inguruan, ibilgailu eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Eta ASTE BATEKO epean duela ballak jartzeko.

2020/83 alkate ebazpen urriaren 21ekoa Jose Garateri zuzendua ez onartuz ezinduen aparkatzeko txartela, ez duelako betetzen elbarrien aparkatzeko txartelak arautzen duen ordenantzaren 2.1 artikulua.

3.- Udaleko garbiketako langileen zerrenda.

Alkateak irakurtzera ematen du zerrenda osatzeko prestatutako plegua, aurreko batzarrean atera ziren zalantza aholkularitza juridikoarekin argitu ondoren.

Balorazio mahaia ondokoak osatzea erabakitzen dute bildutakoek, Lehendakaria alkatea izanen da eta honen ordezkoa Xabier Azpiroz, beste kideak Santos Etxegia eta honen ordezkoa M^a Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa eta honen ordezkoa Julen Beunza.

Azterketa plika bidez izango dela zehaztuko da pleguan eta gaitegia ere zehazten dute bildutakoek hau izanen delarik.

“1.–Oinarrizko kontzeptuak garbiketari buruz eta zoruen fitxa teknikoak. Zikinkeria: jatorria eta ezabaketa. Zoruak, sailkapena.

2.–Garbiketa zerbitzuaren antolamendua eta kontrola. Lan taldeak. Garbiketako langileen eginkizunak. Garbiketari buruzko kontzeptu orokorrak. Garbiketako materialaren zainketa.

3.–Makinak eta garbiketa sistemak.

4.–Garbiketa sistemak. Zoruan erratza pasatzea; moparekin fregatzea. Altzairuak garbitzea. Komunak garbitzea. Kristalak garbitzea.

5.–Zentro publikoak garbitzea. Administrazio eremuak garbitzea. Bainugela eta komun publikoak garbitzea.

6.–Produktu kimikoak garbiketan. Produktu bakoitzaren ezaugarriak. Produktu horien gaineko arau orokorrak. Garbiketak eragindako desinfekzioa. Arriskuak identifikatzea produktu horiek erabiltzerakoan. Produktuen etiketak.

7.–Oinarrizko tresnak eta lanabesak garbiketarako. Produktu kimikoak garbiketan.

8.–Hondakin eta zaborren sailkako bilketa: sailkapena eta tratamendua.

9.–Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ezagutzak: arrisku motak eta horiei aurrea hartzea; norbera babesteko ekipoak.”

Proba teoriko praktikoa aipatutako gaitegian oinarrituko da ere.

Plegua aztertu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Onartzea udaleko garbiketarako langileen zerrenda osatzeko prozesuari hasiera ematea eta hau arautuko duen plegua. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 17a arte izanen da eta bando bidez zabalduko da Basaburuko kontzejuetan. Deialdia ere udaleko web orrian eta tabloian zintzilikatuko dira.

4.- Udaleko aholkularitza juridikoaren asistentzia kontratua.

Alkateak azaltzen du kontratua urte hasieran bertan behera gelditu zela baina luzapen epean dago beste esleipena burutu arte.

Zerbitzu kontratua arautuko duen plegua irakurtzen du alkateak eta bildutakoek aztertzen dute.

Prozeduraren inguruan aurrekontua kontutan hartuta zerbitzu kontratuak zuzenean esleitzeko aurrekontua gehienez 15.000 euroko izan behar da , 2018/2 Kontratu publikoen foru legearen 81. Artikuluaren arabera da eta kontratuen iraingitze epea gehienez 5 urtekoa aipatutako foru legearen 45. Artikuluan arautzen duen bezala.

Aurreko zerbitzu kontratua 4000 euroko gastua onartua zuen urtean, hortaz hori kontutan hartuz eta bost urteko iraingitzearekin gutxienez 20.000 euroko gastua kontutan hartu beharko litzateke prozedura aukeratzeko orduan. Hortaz 2018/2 foru legearen 81. Artikuluaren arabera zuzeneko prozedura ezin da onartu tramitazio honekin lotuta. Legeak ahalbidetzen dituen aukerak aztertu ondorena prozedura irekia erabiltzea adosten dute bildutakoek, hona hemen prozedura, bertan, interesa duten enpresa eta profesional guztiek aurkezten ahal dituzte beren eskaintzak.

Bildutakoek zehazten dute balorazioa, zerbitzuen kalitatea 20 puntu, prezioari 40 puntu eta merituei 20 puntu, falta diren beste 20 puntuak baloratzeko irizpide berdintasunaren inguruko formakuntza eta enpresaren barruan emakume eta gizonen arteko parekotasuna.

Prozedura irekia izanik eta 2018/2 foru legearen 94 zehazten den moduan gutxieneko epea dokumentazioa aurkezteko iragarkia jartzen denetik 15 eguneko da, eta bildutakoek epe hori 20 egunean finkatzea adosten dute.

Guztia aztertu eta zehaztu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Onartzea Basaburuko Udaleko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleituko duen prozesuari hasiera ematea eta hau arautuko duen plegua. Proposamenak aurkezteko epean 20 eguneko izatea onartu ere iragarkia PLENA plataforman jartzen denetik.

5.- Mozioak.

Emakumeen Indarkeriaren kontrako Nazioarteko egunaren inguruko mozioa irakurtzen du alkateak.

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Basaburuko Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Basaburuko Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeke ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Aparteko une batean bizi gara, non osasun-egoerak foku guztiak bereganatu dituen eta gure bizimoduan eragin handia izan den. Egoera zaurgarria dauden pertsonak bereziki kaltetuak izan dira, horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan emakumeek eutsi duten egoera modu bortitzagoan azaleratuko da gero, zantzu guztien arabera. Alde batetik, zerbitzu askok funtzionamendua aldatu dute, beste batzuk gelditu egin dira eta beste batzuek baliabideak desbideratu dituzte, zuzenean edo zeharka. Bestetik, eta aurreko krisietan gertatu zen bezala, jendarte-estres handiagoak eta jendarte-gehiengoaren bizitzaren prekarietate orokorrak erasotzaileen indarkeria areagotzea ekarriko du, eta emakumeen autonomia gutxiago izango dute erabakiak hartzeko.

Konfinamenduak, alde batetik, zerbitzuen prestazioan alterazio bat eragin du, eta, bestetik, ondorio psikologikoak eta bestelakoak eragin ditzake emakume eta haurren, haien prozesuak eten egin baitira, eta, aldi berean, etxean indarkeria-mota eta -adierazpen desberdinak jasan baitituzte. Orain, lehentasunezkoa da jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei, haien seme-alabei, eta sexu-genero sistemaren aurreko disidenteei, zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... Litekeena da indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkarrengaitzen duen kasu konplexuagoi erantzuteko beharra

areagotzea. Izan ere, bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek emakumeengan zuzenean eragindako indarkeriaz gain, krisi honetan beste indarkeria-mota batzuk areagotuko dira, hala nola ekonomikoa. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiak beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministen eskutik egin behar dugu. Krisiaren lehen unetik ahotza altxatu duten horiek, konfinamenduan gatibu hartuta arrisku-egoeran zeuden emakumeei eta euren seme-alabei arreta emateko eskatu dute, eta behin deskonfinamendua iritsitakoan emakumeengan izango zituen ondorio bereziak begien bistatik ez galtzeko.

Gogoan dugu, halaber, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denoi interpelatzen gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

- 1.- Basaburuko Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Basaburuko Udal honek konpromisoa hartzen du COVID19aren krisiak indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Berdintasunerako Nafarroako Institutuarekin/Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta, eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzeko.
- 3.- Basaburuko Udal honek konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak/neurriak/zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko.
- 4.- Horretarako, Basaburuko Udal honek ez du murrizketarik egingo 2021eko aurrekontuetan eta beharrezkoak diren partidak handituko ditu.
- 5.- Indarkeria matxistei erantzuteko koordinazio protokoloa izan ezean,.....(e)ko Udal honek egiteko konpromisoa hartzen du, herrialdeko/erkidegoko berdintasun

instituzioekin batera eta egungo egoerara egokituta, mugimendu feministarekin, emakumeen kolektiboekin eta beste kolektibo sozial batzuekin batera modu parte-hartzailean.

6.- Basaburuko Udal Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeke konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragina berezia izan duen esparruetan.

7.- Basaburuko Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa indartuko du (osasun krisiari egokituta), beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

8.- Basaburuko Udal honek pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentsibilizazioko ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoerara egokituta.

9.- Basaburuko Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako (eta egungo egoerari egokitutako) jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

10.- Basaburuko Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako eta egungo egoerari egokitutako sentsibilizazio eta formazio jarduera iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezko onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

11.- Basaburuko Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerari egokitutako jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. jasoz.

12.- Erakunde honetatik, hau da, Basaburuko Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeke bide eta tresna nagusia den heinean.

13.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

6- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Hariztietan dauden panelak berrituko dira.

Gizarte Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Biolentometroa prest dago bidaltzeko, 12 urtetik gorako emakume eta gizonei bidaliko zaie. Bidalketa posta bidez egingen da udaletik.

7- Informazio orokorra.

- Nafarroako Enplegu zerbitzutik langabetuen bigarren kontratazioengatik langile baten dirulaguntza onartu dutela jakinarazten dute, aldiz bigarren kontratuaren dirulaguntza bertan behera gelditu da langileak lana aldez aurretik utzi duelako.

Hezkuntza Departamentuak, Ttikiena Haur eskolako 2019-2020 ikasturteko azken ekarpenaren ordainketaren ebazpena bidali du, 10726 eurokoa.

Oso tara aurreko urteko dirulaguntza 46.515 eurokoa izango da.

- Agenda 21 eko dirulaguntza ez dutela onartu ere jakinarazten du Ingurugiro Departamentuak. Basaburuko udaleko proiektuak 49.50 puntu zituen eta dirulaguntza jaso duen azken proiektuak aldiz 57.50 puntu.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 19:35 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.